

BALOREZKO PROPOSAMENA

Parlantxin tabernak, ikasteko modu ezberdin bat adierazten du, modu tradizionaletik ezberdinduta. Helburu nagusia hizkuntzak modu errazean ikatea eta praktikatzea den. Gainera, herrialde desberdinetako janari eta edari tipikoenak eskainiko ditugu. Janaria pintxo moduan eskainiko dugu, edariak, berriz, herrialde bakoitzaren edalontzi tipikoetan. Gure negozioaren dinamika oso erreza eta intuitiboa da. Lehenik eta behin, hizkuntza bat irakatsi nahi bada lokalaren sarreran hitz egiten den hizkuntzaren bandera hartu eta mahai batean jesarri behar da, bandera mahaiaren erdian kokatuz. Helburua kontrakoa izatekotan, hau da, mintzaira bat ikatea, lokalean sartzean ikasi nahi den hizkuntzaren bandera bilatu behar da eta bandera hori duen mahaian jesarri.

Horretaz gain, nahi izanez gero, aukeratutako banderaren arabera herrialde horren janari tipikoenak zerbitzatuko ditugu pintxo moduan. Edariak ere herrialde horretan erabiltzen dituzten edalontziekin zerbitzatuko ditugu.



Hizkuntzak ikasteko, liburuak alde batera uzten ditugu ahozko praktikan zentratzeko. Modu honetan, ahozko praktika askoz ere gehiago landuko litzateke, hizkuntzaren funtsezko atala baita.



Beraz, gure negozioa, gaur egungo gizartearentzako oso ohikoa den arazo bat konponduko luke: hizkuntza berri bat ikasterakoan falta zaigun soltura. Ikasi nahi ditugun hizkuntzen pertsona natiboekin hitz egiten, falta zaigun konfiantza eta kutsua lortuko dugu.

Honi erreparatuz, Parlantxin taberna, negozio berritzailea dela esan genezake, garrantzi handia ematen diogulako gure bezeroak lagun artean hitz egiten baleude bezala sentitu daitezten.



Beste alde batetik, herrialde bakoitzeko tipikoak diren janariak eta edariak zerbitzatzen ditugunez, gure lehiakidetatik bereiztea lortuko genuke, eta prezioaren aldetik merkea denez, esan genezake gure balorea kuantitatiboa dela.